

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2014KO IRAILAREN 23AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 23 DE SEPTIEMBRE DE 2014.</b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>BATZARKIDEAK</u></b>	<b><u>VOCALÉS</u></b>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi and.  
Koldo Iturbe Mendilibar jn.  
Joseba Arregi Martínez jn.  
Ana Helguera Líbano and.  
Elena Coria Yanguas and.  
Álvaro González Pérez jn.  
Kepa Miñambres Llona jn.  
Josu Loroño Goienetxe jn.

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko irailaren hogeita hiruan, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a veintitrés de septiembre de dos mil catorce, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el

dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

310.- 2014KO IRAILAREN 16AN EGINDAKO OHIKO BILERAKO AKTA ONESTE.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2014ko irailaren 16ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA

311.- MATRIKULAK IDENTIFIKATZEKO UDALTZAINGOAREN SISTEMA ("MULTACAR") ETA RADARREZKO SISTEMA ZINEMOMETRIKOA ("MULTANOVA 6F-MR") ARTATZEKO OSOKO ZERBITZUA ESLEITZEKO HASITAKO PROZEDURA ESLEITU GABE BERE HARTAN UZTEA.

Kontratazio Zerbitzuaren burua den zinegotziak proposatuta, honako hau erabaki zen:

BAKARRA: MATRIKULAK IDENTIFIKATZEKO UDALTZAINGOAREN SISTEMA ("MULTACAR") ETA RADARREZKO SISTEMA ZINEMOMETROA ("MULTANOVA 6F-MR") ARTATZEKO OSOKO ZERBITZUA esleitzeko prozedura irekia ESLEITU GABE BERE HARTAN UZTEA; izan ere, prozedura horretara ez da lizitatzailerik aurkeztu.

Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

310.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 16 DE SEPTIEMBRE DE 2014.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 16 de septiembre de 2014.

HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA

311.- DECLARAR DESIERTO EL PROCEDIMIENTO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO INTEGRAL DEL SISTEMA DE IDENTIFICACIÓN DE MATRÍCULAS "MULTACAR" Y DEL SISTEMA CINEMÓMETRO RADAR "MULTANOVA 6F-MR" DE LA POLICÍA LOCAL.

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

ÚNICO: DECLARAR DESIERTO el Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE MANTENIMIENTO INTEGRAL DEL SISTEMA DE IDENTIFICACIÓN DE MATRÍCULAS "MULTACAR" Y DEL SISTEMA CINEMÓMETRO RADAR "MULTANOVA 6F-MR" DE LA POLICÍA LOCAL DE GETXO, teniendo en cuenta que no se ha presentado ningún licitador a dicho procedimiento.

**312.- LEGEZKO AHOLKULARITZA  
ZERBITZUAREN LUZAPENA  
GIZARTE ZERBITZUEN  
SAILERAKO.**

Kontratazio Zerbitzuaren burua den zinegotziak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENA: URTEBETE (1. luzapena) luzatzea, 2014ko azaroaren 2tik 2015eko azaroaren 1era, 30.559.473-V NAN duen PATRICIA VERDES CEARRA andrearekin sinatutako kontratuaren indarraldia, GETXOKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN SAILERAKO LEGEZKO AHOLKULARITZA ZERBITZURAKO, 5.830 euroren truke, urtean, gehi 1.224,30 euro (BEZaren % 21).

BIGARRENA: Beharrezko 5.830 euroko gastua (gehi % 21eko BEZari dagozkion 1.224,30 euroak) baimentzea eta agintzea aipatutako luzapenari aurre egiteko.

**313.- ANIMALIA ZERBITZUA  
LUZATZEA GETXOKO  
UDALERRIAN.**

Kontratazio Zerbitzuaren burua den zinegotziak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENA: URTEBETE LUZATZEA (1. luzapena) 2014ko urriaren 31tik 2015ko urriaren 30 arte, B-48836779 IFZ duen S.E.C. SERVICIOS Y EQUIPOS CANINOS, S.L. sozietateari GETXOKO UDALERRIKO ANIMALIA ZERBITZUA, 53.873 euroren truke, gehi % 21eko BEZari dagozkion 11.313,33 euro.

**312.- PRORROGA DEL SERVICIO DE  
ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL  
ÁREA DE SERVICIOS SOCIALES.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (1ª Prórroga), desde el 02/11/2014 al 01/11/2015, la vigencia del contrato suscrito con Dña. PATRICIA VERDES CEARRA con DNI: 30.559.473-V para el SERVICIO DE ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL AREA DE SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO por importe de 5.830.-euros anuales más 1.224,30.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 5.830.-euros anuales más 1.224,30.-euros correspondiente al 21% de I.V.A. para hacer frente a la citada prórroga.

**313.- PRORROGA DEL SERVICIO DE  
ANIMALES EN EL MUNICIPIO DE  
GETXO.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (1ª Prórroga), desde el 31/10/2014 al 30/10/2015, a la razón social S.E.C. SERVICIOS Y EQUIPOS CANINOS, S.L con C.I.F.: B-48836779 el SERVICIO DE ANIMALES EN EL MUNICIPIO DE GETXO, por importe de 53.873.-euros más 11.313,33.-euros correspondientes al 21% de I.V.A.

BIGARRENA: Beharrezko 53.873 euroko gastua (gehi % 21eko BEZari dagozkion 11.313,33 euroak) baimentzea eta agintzea aipatutako luzapenari aurre egiteko.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe 53.873.- euros más 11.313,33.-euros correspondientes al 21% de I.V.A. para hacer frente a la citada prórroga.

**314.- BIDE PUBLIKO ZEHATZ BATZUETAKO AZALERAN IBILGAILUEN APARKALEKU ARAUTUAREN ZERBITZUA LUZATZEA.**

**314.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE ESTACIONAMIENTO REGULADO DE VEHÍCULOS EN SUPERFICIE EN DETERMINADAS VÍAS PÚBLICAS.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi-arduradunaren proposamenez, honako hau erabaki zen:

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

LEHENA: GETXOKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO ZEHATZ BATZUETAKO AZALERAN IBILGAILUEN APARKALEKU ARAUTUAREN ZERBITZU rako GERTEK, EMPRESA DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A." enpresarekin (IFK:A95158895) izenpetutako kontratuaren indarraldia URTEBETEZ luzatzea (lehen luzapena eta bakarra) ondoren adierazten diren zenbatekoetan:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera y única prórroga), desde el 01/10/2014 al 30/09/2015, la vigencia del contrato suscrito con GERTEK, EMPRESA DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A.", con C.I.F. n° A95158895 para el SERVICIO DE ESTACIONAMIENTO REGULADO DE VEHÍCULOS EN SUPERFICIE EN DETERMINADAS VÍAS PÚBLICAS DEL MUNICIPIO DE GETXO por los importes que se señalan a continuación:

<b>KONTRAPRESTAZIO EKONOMIKOA (BEZ-A barne)</b>	<b>ESKAINITAKO KANONA (I.V.A. incl)</b>	<b>GEHIEGIZKO DIRU-BILKETAN IZANDAKO PARTAIDETZA-PORTZENTAJEA</b>	<b>UNITATEKO PREZIOAK</b>
990.000 €/urteko	120.000 €/urteko	% 100	Bere eskaintzan jasotakoak

Luzapen hau onartzen da; nolahi ere, lehen aipatutako kontraprestazio ekonomiko, eskainitako kanon eta unitateko prezioak berraztertuko dira, hala dagokionean.

La presente prórroga se aprueba sin perjuicio de la revisión que en su caso proceda de la contraprestación económica, canon ofertado y precios unitarios antes referidos.

BIGARRENA: Aipatutako luzapenari aurre egiteko 990.000 €/urteko beharreko gastua baimendu eta prestatzea.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 990.000.-€/año para hacer frente a la citada prórroga.

**315.- GETXO ANTZOKIA, 4. FASEA: ESTALKIAK, INSTALAZIOAK ETA BANAKETAK PROIEKTUAN JASOTAKO OBREN 12. ZIURTAGIRI-LIKIDAZIOA ONESTEIA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi-arduradunak hala proposatuta, honako hau erabaki zen:

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** Tokiko Gobernu Batzordeak, 2012ko uztailaren 3ko batzarrean hartutako 283 zenbakidun Erabakiaren bitartez, TEILATUAK, INSTALAZIOAK ETA ZATIKETAK DERITZON GETXO ANTZOKIAREN 4. FASEARI DAGOKION PROIEKTUA onetsi zuen, 5.997.435,48 €-ko aurrekontuaren truke; halaber, aipatutako obrak PROCEDURA IREKI bidez kontratatzeko erabakia hartu zuen.

**BIGARRENA:** Tokiko Gobernu Batzordeak, 2012ko urriaren 26ko batzarrean hartutako 392 zenbakidun Erabaki bidez, PUENTES ETA GEROA ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEARI esleitu zitzaizkion aipatutako obrak, 3.341.282,07 €-ren truke; kopuru horri, BEZ gehitu behar zaio (garai hartan dagoeneko indarrean zegoen % 21eko BEZ9, beraz, zenbatekoa 4.042.951,30 €-koa zen, guztira.

**HIRUGARRENA:** 2012ko urriaren 10ean, 3/2012/1/004545-4550 zenbakidun banku-abala eratu zen, 167.064,1 €-koa.

**LAUGARRENA:** Obra Zuzendaritzako lan horien amaierako 12. ziurtagiria eta

**315.- APROBACIÓN DE LA 12ª CERTIFICACIÓN-LIQUIDACIÓN DE LAS OBRAS COMPRENDIDAS EN EL PROYECTO DE GETXO ANTZOKI, FASE 4A: CUBIERTAS, INSTALACIONES Y PARTICIONES.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO:** Por Acuerdo N° 283 adoptado por la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada en fecha 03/07/2012 se aprobó el PROYECTO DE GETXO ANTZOKI, FASE 4A: CUBIERTAS, INSTALACIONES Y PARTICIONES, por importe de 5.997.435,48 euros, acordándose igualmente proceder a la contratación, por PROCEDIMIENTO ABIERTO, de las obras de referencia.

**SEGUNDO:** Por Acuerdo n° 392, adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 26/10/2012, se adjudica a U.T.E PUENTES Y GIROA, la ejecución de las obras de referencia, por importe de 3.341.282,07 euros, más el I.V.A. correspondiente, sumando el importe de adjudicación más el I.V.A. del 21%, vigente ya en aquél momento, un total de 4.042.951,30€.

**TERCERO:** Con fecha 10/10/2012 fue constituido aval bancario bajo el núm. 3/2012/1/004549 - 4550 por importe de 167.064,1 euros.

**CUARTO:** Por la Dirección de Obra se presenta para su aprobación, si

baloratutako zerrenda aurkeztu zituen, 404.292,48 €-koa, hain zuzen ere, BEZ barne.

BOSGARRENA: Obrak egikaritu eta azken neurketak egin ondoren, 4.447.243,77 €-ko aurrekontu likidoa eskuratu zen, ondorioz, kontratistaren aldeko 404.292,48 €-ko saldoa (BEZ barne); horrek, esleipenaren zenbatekoarekiko % 9,99ko soberakina suposatzen du, gehiegizko neurketaren ondorioz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuena, abuztuaren 5eko 34/2010 Legeak aldatu zuena; Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsia, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, SPKL partzialki garatzen duena.

II.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituena; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-dekretuak onartutako Testu Bategina eta aplikagarria den eta bat datorren gainerako legedia.

III.- 218.1 artikulua bigarren paragrafoak zera xedatzen du: "kontratazio-organoak amaierako ziurtagiria onetsi beharko du...". Honako kasuan, eskudun kontratazio-organoa Tokiko Gobernu Batzordea da, Alkateak bere esku utzi duelako zeregin hori.

Kontratazio-zerbitzuko Zinegotzi Arduradunak eskatuta, Tokiko Gobernu Batzordearen irizpenerako aurkeztu da honako proposamena:

ERABAKI-PROPOSAMENA:

procede, 12ª certificación - final y relación valorada de dichos trabajos, por importe de 404.292,48 euros, I.V.A. Incluido.

QUINTO: Ejecutadas las obras y realizadas las mediciones finales se obtiene un presupuesto líquido total de 4.447.243,77 euros, resultando un saldo a favor del contratista de 404.292,48 euros (I.V.A. incluido), lo que supone un exceso del 9,99% sobre el importe de adjudicación, debido a un exceso de medición.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (LCSP), modificada por Ley 34/2010 de 5 de agosto; Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la LCSP.

II.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

III.- El artículo 218.1, en su párrafo segundo, dispone que "el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final...". En el caso presente, el órgano de contratación competente lo es la Junta de gobierno Local, por delegación efectuada por el Alcalde.

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENA: GETXO ANTZOKIA, 4. FASEA: ESTALKIAK, INSTALAZIOAK ETA BANAKETAK PROIEKTUari dagokion Obra Zuzendaritzak aurkeztutako 12. azken ziurtagiria eta 404.292,48 euroko zerrenda onestea; haiek "U.T.E PUENTES Y GIROA.", izen sozialari esleitu zitzaizkion 2012/10/26ko Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako 392. erabakiz, eta gastua Udal Aurrekontuaren kargu geratu zen.

Ez da beharrezkoa beste gastu bat baimentzea; izan ere, aipatutako gehiegizkoa bere garaian gordetako aurrekontu-zenbatekoak estali zuen, ez zena erabili lizitazio- eta esleipen-kopuruaren artean zegoen beheranzko aldeagatik.

BIGARRENA: 404.292,48 euroko gehiegizko aurrekontua onartzea, BEZa barne, aipatutako obra-proiektuari dagokiona, eta gehiegizko neurketa batetik sortutakoa.

"U.T.E. LAU" (PUENTES Y CALZADAS INFRAESTRUCTURAS, S.L. - GIROA, S.A.) izen sozialaren alde, IFK-zenbakia U-95699625 duena, 404.292,48 €-ko gastua prestatzea, BEZa barne.

**316.- ROMOKO KULTUR ETXEKO ERAIKINAREN PROIEKTUAN, 1. FASEA, JASOTAKO OBREN 13. ZIURTAGIRI-LIKIDAZIOA ONESTEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi-arduradunak hala proposatuta, honako hau erabaki zen:

PRIMERO: Aprobar la 12ª certificación - final y relación valorada que por importe de 404.292,48 euros, presenta la Dirección de Obra correspondiente a las comprendidas en el PROYECTO DE GETXO ANTZOKI, FASE 4A: CUBIERTAS, INSTALACIONES Y PARTICIONES, las cuales fueron adjudicadas a la razón social "U.T.E PUENTES Y GIROA.", por Junta de Gobierno Local N° 392, de fecha 26/10/2012, imputándose el gasto a cargo del Presupuesto Municipal.

No resulta necesario autorizar nuevo gasto dado que el exceso mencionado queda cubierto por la parte de la cuantía presupuestaria en su día reservada y que no fue empleada debido a la diferencia a la baja entre el importe de licitación y el importe de adjudicación.

SEGUNDO: Aprobar el exceso de presupuesto, cifrado en 404.292,48 euros (I.V.A. incluido), correspondiente al proyecto de obras de referencia, derivado de un exceso de medición.

Disponer el gasto, por el citado importe de 404.292,48 €, I.V.A. incluido, a favor de la razón social "U.T.E. LAU" (PUENTES Y CALZADAS INFRAESTRUCTURAS, S.L. - GIROA, S.A.), con CIF: U-95699625.

**316.- APROBACIÓN DE LA 13ª CERTIFICACIÓN-LIQUIDACIÓN DE LAS OBRAS COMPRENDIDAS EN EL PROYECTO DE EDIFICIO KULTUR ETXEA DE ROMO, FASE 1.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

#### AURREKARIAK

LEHENENGOA: Tokiko Gobernu Batzordeak, 2011ko martxoaren 1ean hartutako 98 zenbakidun Erabakiaren bitartez, ERROMOKO KULTURA ETXEAREN ERAIKINAREN 4. FASEARI DAGOKION PROIEKTUA onetsi zuen, 3.075.644,46 €-ko aurrekontuaren truke; halaber, aipatutako obrak PROZEDURA IREKI bidez kontratatzeke erabakia hartu zuen.

BIGARRENA: Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko otsailaren 26ko batzarrean hartutako 76 zenbakidun Erabaki bidez, B9551148-1 zenbakidun IFK daukan CONTRATAS Y CONSTRUCCIONES BIKANI SL enpresari esleitu zitzaizkion aipatutako obrak, 1.569.166,28 €-ren truke; kopuru horri, BEZ gehitu behar zaio (garai hartan dagoeneko indarrean zegoen % 21eko BEZ), beraz, zenbatekoa 1.898.691,20 €-koa zen, guztira.

HIRUGARRENA: 2011ko abenduaren 14an, 3/2011/1/005804 zenbakidun banku-abala eratu zen, 78.458,31 €-koa.

LAUGARRENA: Obra Zuzendaritzak lan horien amaierako 13. ziurtagiria eta lan horien 426.214,9 €-tan (BEZ barne) balioztatutako zerrenda aurkeztu zituen.

BOSGARRENA: Obrak egikaritu eta azken neurketak egin ondoren, 2.018.732,14 €-ko aurrekontu likidoa eskuratu zen, ondorioz, kontratistaren aldeko 120.040,94 €-ko saldoa (BEZ barne); horrek, esleipenaren aurrekontua % 6,32 handitzea suposatzen du, gehiegizko neurketaren

#### ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO: Por Acuerdo nº 98 adoptado por la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada en fecha 01/03/2011 se aprobó el PROYECTO DE EDIFICIO KULTUR ETXEA DE ROMO-FASE 1, por importe de 3.075.644,46 euros, acordándose igualmente proceder a la contratación, por PROCEDIMIENTO ABIERTO de las obras de referencia.

SEGUNDO: Por Acuerdo nº76 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 26/02/2013, se adjudica a CONTRATAS Y CONSTRUCCIONES BIKANI, SL, con C.I.F.: B9551148-1, la ejecución de las obras de referencia, por importe de 1.569.166,28, más el I.V.A. correspondiente, sumando el importe de adjudicación más el I.V.A. del 21%, vigente ya en aquél momento, un total de 1.898.691,20€.

TERCERO: Con fecha 14/12/2011 fue constituido aval bancario bajo el núm. 3/2011/1/005804 por importe de 78.458,31 euros.

CUARTO: Por la Dirección de Obra se presenta para su aprobación, si procede, 13ª certificación - final y relación valorada de dichos trabajos, por importe de 426.214,9 euros, I.V.A. Incluido.

QUINTO: Ejecutadas las obras y realizadas la mediciones finales se obtiene un presupuesto líquido total de 2.018.732,14 euros, resultando un saldo a favor del contratista de 120.040,94 euros (I.V.A. incluido), lo que supone un incremento del 6,32% sobre el presupuesto de adjudicación, debido a



ondorioz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- I.- Araudi aplikagarria ondorengoa da:
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuak onetsi zuena.
  - 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege-dekretuak onartutako Testu Bategina SPKLTBaren 235.1 artikulua zera xedatzen du bigarren paragrafoan: "kontratazio-organoak amaierako ziurtagiria onetsi beharko du...".
- II.- Honako kasuan, eskudun kontratazio-organoa Tokiko Gobernu Batzordea da, Alkateak bere esku utzi duelako zeregin hori.

Kontratazio-zerbitzuko Zinegotzi Arduradunak eskatuta, Tokiko Gobernu Batzordearen irizpenerako aurkeztzen da honako proposamena:

#### ERABAKI-PROPOSAMENA:

LEHENA: ROMOKO KULTUR ETXEKO ERAIKINAREN PROIEKTUAN, 1. FASEari dagokion Obra Zuzendaritzak aurkeztutako 13. azken ziurtagiria eta 426.214,9 euroko zerrenda onestea; haiek "CONTRATAS Y CONSTRUCCIONES BIKANI, SL.", izen sozialari esleitu zitzaizkion 2012/02/26ko Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako 76. erabakiz, eta gastua Udal Aurrekontuaren kargu geratu zen.

Ez da beharrezkoa beste gastu bat baimentzea; izan ere, aipatutako

un exceso de medición.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- I.- La normativa aplicable es la siguiente:
- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.
  - Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril
- El artículo 235.1 TRLCSP, en su párrafo segundo, dispone que "el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final...".
- II.- En el caso presente, el órgano de contratación competente lo es la Junta de Gobierno Local, por delegación del Alcalde.

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

#### PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: Aprobar la 13ª certificación - final y relación valorada que por importe de 426.214,9 euros, presenta la Dirección de Obra correspondiente a las comprendidas en el PROYECTO DE EDIFICIO KULTUR ETXEA DE ROMO-FASE 1, las cuales fueron adjudicadas a la razón social "CONTRATAS Y CONSTRUCCIONES BIKANI, SL.", por Acuerdo nº 76 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 26/02/2013, imputándose el gasto a cargo del Presupuesto Municipal.

No resulta necesario autorizar nuevo gasto dado que el exceso mencionado

gehegizkoa bere garaian gordetako aurrekontu-zenbatekoak estali zuen, ez zena erabili lizitazio- eta esleipen-kopuruaren artean zegoen beheranzko aldeagatik.

BIGARRENA: 120.040,94 euroko gehegizko aurrekontua onartzea, BEZa barne, aipatutako obra-proiektuari dagokiona, eta gehegizko neurketa batetik sortutakoa.

"CONTRATAS Y CONSTRUCCIONES BIKANI, SL.", izen sozialaren alde, IFK-zenbakia B-95511481 duena, 120.040,94 €-ko gastua prestatzea, BEZa barne.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA**

**317.- 2014-07-30 TGBREN 289. ERABAKIARI IGARRITAKO OKERRA ZUZENTZEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

**LEHENENGOA.-**

I.- Tokiko Gobernu Batzardeak, 2014ko uztailaren 30eko batzarrean, hartutako 289 zenbakidun Erabakiaren xedapenen zatian, I. Lehenengo atalean, egindako akats materiala zuzentzea; luzapena, Alango Plazako 2 eta 3 zenbakietan dagoen eraikinaren fatxadak eta teilatua birgaitzeko obren amaierako dokumentazioa aurkezteko ematen dela jaso behar da Erabaki horretan. Aipatutako obrak egiteko baimena 2013ko uztailaren 16ko 298 zenbakidun

queda cubierto por la parte de la cuantía presupuestaria en su día reservada y que no fue empleada debido a la diferencia a la baja entre el importe de licitación y el importe de adjudicación.

SEGUNDO: Aprobar el exceso de presupuesto, a favor de la adjudicataria, cifrado en 120.040,94 euros (I.V.A. incluido), correspondiente al proyecto de obras de referencia y derivado de un exceso de medición.

Disponer el gasto, por el citado importe de 120.040,94 euros (I.V.A. incluido), a favor de la mercantil CONTRATAS Y CONSTRUCCIONES BIKANI, S.L. con C.I.F.: B-95511481.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE**

**317.- SUBSANAR EL ERROR CONTENIDO EN EL ACUERDO DE N° 289 JGL DE 30/07/14.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

**PRIMERO.-**

I.- Subsanan el error material contenido en la parte dispositiva, apartado Primero I. del Acuerdo nº 289 de la Junta de Gobierno Local adoptado en sesión celebrada el 30 de julio de 2014, debiendo constar en el Acuerdo que la prórroga se concede para la presentación de la documentación final de las obras de rehabilitación de fachadas y cubierta del edificio sito en la Plaza Alango 2-3 que fueron autorizadas mediante Acuerdo 298 de

Erabaki bidez eman zen .

II. Honako ebazpena eskatzaileari helaraztea, dagozkion ondoretarako jakinaren gainean gera dadin.

III. Espedientea Ekonomia Alorrari bidaltzea, dagozkion ondoretarako jasota gera dadin.

**318.- OBRA-LIZENTZIA ESKATUTA, ATXEKOLANDETA KALEKO 18-20 ATARIETAKO ETXEAK, BELRESPIRO DERITZANAK, DUEN PARTZELAKO ERANTSIKO ERAIKINA ERAISTEKO EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- I.- JAVIER CAREAGA GARTEIZ-GOGEASCOA Jaunari, Atxekolandeta kaleko 18-20 zenbakietan dagoen Belrespiro etxearen partzelan dagoen eraikin osagarria eraisteko eskatutako obra-lizentzia ematea; lizentzia hori ematen zaio, honakoak kontuan hartuta eta horien arabera: Jose Ramon Foraster Bastida Arkitekto Jaunak idatzi eta, 2014ko ekainaren 5ean, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak onetsitako eraiste-proiektua; Udaleko Osoko Bilkurak 2013ko irailaren 25ean hartutako 105 zenbakidun Erabakiaren arabera behin betiko onetsitako Xehetasun-azterketa; eta Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29.1 artikuluan aipatzen den udal lizentziaren aurretiko baimena ematea erabakitzen duen Bizkaiko Foru Aldundiako Kultura Alorreko Zuzendari Nagusiaren 2014ko maiatzaren 15eko

16 de julio de 2013.

II. Dar traslado de la presente resolución al solicitante, para su conocimiento a los efectos oportunos.

III. Remitir el expediente al Área Económica para su constancia a los efectos oportunos.

**318.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA EL DERRIBO DE LA EDIFICACIÓN AUXILIAR EN LA PARCELA DE LA CASA BELRESPIRO, SITA EN LA C/ATXEKOLANDETA, 18-20.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- I.- Conceder a D. JAVIER CAREAGA GARTEIZ-GOGEASCOA la licencia de obras solicitada para el derribo de la edificación auxiliar en la parcela de la casa Belrespiro, sita en la C/ Atxekolandeta, nº 18-20, de conformidad con el proyecto de derribo redactado por el Arquitecto D. José Ramón Foraster Bastida, visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro con fecha 05.06.14, el Estudio de Detalle aprobado definitivamente en virtud de Acuerdo nº 105, adoptado por el Ayuntamiento Pleno el 25.09.13 y la Resolución nº 71/14 de 15 de mayo de 2.014, del Sr. Director General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, por la que se acuerda otorgar la autorización previa a la concesión de licencia municipal a que se refiere el artículo 29.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, debiendo cumplir las siguientes

71/2014 zenbakidun Ebazpena; honako baldintzak bete beharko dira:

#### OROKORRAK

Obrak hasi aurretik, udal teknikariek obra horien zuinketa onetsi beharko dute; une horretan, okupatuko den zonako zoladuraren egoeraren argazki-erreportajea egingo da.

#### URA ETA SANEAMENDUA

Eraitsiko den eraikinaren hornikuntza-sareen eta estolderiako sareen lotuneak eten egin beharko dira eraikinetik sare orokorreraino. Hori egin ondoren, Ur eta Saneamendu Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio (Tel.: 944660180), etete hori behar bezala egin dela egiazta dezaten, *ins itu*.

#### BIDE-ZAINTZA

Behin eraisketa-lanak amaitu eta obrak hasi aurretik egindako argazki-erreportajea erreferentziatzat hartuta, zuzenean egindako lanen ondorioz edo obrei lotutako makineriaren eta ibilgailuen maniobren eta/edo joan-etorrien ondorioz hondatu den zoladura konpondu beharko da.

Halaber, sareen lotuneak etetearen ondorioz egin beharreko zoladuraren konponketa-lanak gauzatuko dituzte udal zerbitzuek edo udaletik kanpoko zerbitzuek; konpontze-lan horietarako dagoenaren ezaugarri berberak dituen zoladura erabiliko da eta lurraren paketeak Udalaren sekzio ereduetan definitutakoari egokituko zaizkio. Konpontze-lan horiek egin behar direnean, Bide-zaintza Atalari jakinarazi beharko zaio (Tel.: 944660180)

condiciones:

#### GENERALES

Antes de iniciar las obras, el replanteo de las mismas deberá de ser aprobado por los técnicos municipales, momento en el que se realizará un reportaje fotográfico del estado del pavimento afectado por la ocupación.

#### AGUA Y SANEAMIENTO

Las acometidas de las redes de abastecimiento y de alcantarillado del edificio a derribar deberán anularse desde el edificio hasta la red general. Hecha la anulación se deberá dar traslado de ello a los Servicios de Agua y Saneamiento ( Tlf: 944660180) con el objeto de que estos verifiquen “ in situ” su correcta ejecución.

#### VIALIDAD

Terminado el derribo y tomando como referencia el reportaje fotográfico realizado al inicio de las obras se realizará la reparación del pavimento que haya sufrido deterioros bien como consecuencia directa de los trabajos realizados o como consecuencia de las maniobras y/o itinerarios de la maquinaria y vehículos afectados a la misma.

Así mismo se realizará la reparación del pavimento afectado por la anulación de las acometidas, que haya de realizarse en su caso de cualquier servicio municipal o no municipal , esta reparación se ejecutará con pavimento de las mismas características que el existente y el paquete de firmes se ajustará a lo definido en las secciones tipo municipales . A la hora de realizar estas reparaciones se deberá dar

traslado de ello a la Sección de Vialidad  
( Tlf: 944660180)

#### ARGITERIA

Inguruetakoa dauden instalazioak baldintza onetan kontserbatuko dira. Obrak egikaritu bitartean instalazioek jasaten duten kalte edo hondatze oro obrei gozten zaie.

#### GARBIKETA ETA LOREZAINNTZA

Espazio publikoetan edo erabilera publikorako lagako diren egikaritze berriko edo aurreikusitako obren ondorioz kaltetutako lorategiei eta zuhaitzietan dagokienez ere, Udal Teknikariek harremanetan jarri beharko dira, elementu horiek izan behar dituzten amaierako baldintzak zehazteko helburuz.

Azkenik, lur-mugimendurik egin eta/edo eraikinik eraitsi aurretik, ezinbesteko eskakizuna da dagokion lizentziak eragindako eremuan eta inguruetan arratoi-garbiketa tratamendu sakona egitea.

Tratamendu hori obrak hasi baino 15 egun lehenago, gutxienez, egin beharko du Establezimendu eta Zerbitzu Pestiziden Erregistro Ofizialean izena emanda dagoen enpresa espezializatua.

Arratoi-garbiketa tratamendua egin ondoren, enpresa jarduleak Tratamenduen Ziurtagiria egingo du; ziurtagiri horretan, zein produktu erabili dituen, erabilitako bolumena eta zein eremutan, zehazki aplikatu dituen

#### ALUMBRADO

Se conservarán en correctas condiciones las instalaciones existentes en las zonas próximas. Se entiende que todo daño o deterioro sufrido por las instalaciones durante la ejecución de las obras será imputable a éstas.

#### LIMPIEZA Y JARDINERÍA

En relación con la jardinería y arbolado de nueva ejecución o a afectar con las obras previstas, situado en espacios públicos o que vayan a ser cedidos a uso público, deberán igualmente ponerse en contacto con los Técnicos Municipales al objeto de marcar las condiciones finales que deberán presentar los mismos.

Finalmente, antes de efectuar un movimiento de tierras y/o derribo de edificaciones es requisito indispensable efectuar un tratamiento intensivo de desratización en el área afecta a la correspondiente licencia y sus inmediaciones.

El tratamiento de desratización será efectuado con una antelación mínima de 15 días al inicio de las obras y será efectuado por una empresa especializada que deberá estar inscrita en el Registro Oficial de Establecimientos y Servicios Plaguicidas.

Tras la realización del tratamiento intensivo de desratización, la empresa actuante emitirá un Certificado de Tratamiento donde se indique el/los productos utilizados que deberán estar inscritos en el Registro de Plaguicidas

adierazi beharko du. Produktuok Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren Pestiziden Erregistroan inskribatutakoak izan beharko dira.

Obrak hasi aurretik bidali behar zaio Tratamenduaren Ziurtagiria Udalari.

#### BESTE ZERBITZU BATZUK.

Ikuskapen-bisita egin da eta eraitsi beharreko eraikinaren fatxadari finkatuta linea elektrikoak eta telefono-lineak daudela ikusi da; beraz, zerbitzurik gabe geratu behar badira, lineok kentzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira; hala ez bada, berriz, eta beharrezkoa balitz, desbideratu egingo dira. Debekatuta dago bide publikoan zutoinak jartzea; beharrezkoa bada, dagokion kanalizazioa egingo da, Udaleko teknikarien oniritzia lortu ondoren.

#### ZUINKETA:

Honako lizentzia ematen dela adierazten den jakinarazpena jaso eta 180 egun naturaleko epearen barruan, Zuinketa-akta egin behar da. Udaleko Arkitektoak edo haren Ordezkariek, obren Zuzendari Fakultatiboa bertan dela, lursailean bertan, jarraitu beharreko lerratzeak eta sestrak adierazi arte ezingo dira obrak hasi; hori, obren Zuzendariak abisua eman eta HIRU EGUNEN buruan egingo da.

**OBRAREN ITXITURA:** Obrak hasi aurretik, obra-esparruan itxiko da, Segurtasun Azterketan zehaztutakoaren arabera.

de la Dirección General de Salud Pública, el volumen empleado y las zonas concretas de aplicación de los mismos.

El Certificado de Tratamiento será remitido al Ayuntamiento con anterioridad a la ejecución de las obras.

#### OTROS SERVICIOS.

Girada visita de inspección se ha podido comprobar la existencia de tendidos eléctricos y telefónicos anclados a la fachada de la edificación a demoler por lo que se adoptarán las medidas necesarias para la eliminación de los mismos, si van a quedar fuera de servicio, y/o su desvío en caso de ser necesarios. No está permitida la instalación de postes en la vía pública, en caso necesario se realizará la canalización correspondiente previo el visto bueno de los técnicos municipales.

#### REPLANTEO:

En el plazo de 180 días naturales a partir del recibo de la comunicación del otorgamiento de esta licencia, se deberá realizar el acta de Replanteo Municipal. No podrán comenzar las obras sin que el Arquitecto Municipal o su Delegado, señalen sobre el terreno en presencia del Director Facultativo de las obras, las alineaciones y rasantes que deberán seguirse, a lo que procederá en el término de TRES DIAS, desde que fuera avisado por el Director de las obras.

**CIERRE DE LA OBRA:** Antes de comenzar las obras se procederá al cierre del recinto de obra de acuerdo con lo especificado en el Estudio de Seguridad.

#### GARABIEN INSTALAZIOA:

Obran erabiliko den garabia jarri aurretik, garabia jartzeko eskabidea aurkeztu behar da; eskabide horretan, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) Obraren barruan garabiaren kokalekuaren plano, proiektua egin duen Arkitektoak eta obra-zuzendariak izenpetuta; espresuki adieraziko da garabiaren eremuaren barruan eta inguruetan dauden oztopoak, biraketa-radioa eta garabiaren besoaren ekortze-eremua .
- b) Lurzoruaren erresistentzia ziurtagiria, eskudun teknikariak egin.
- c) Aseguru-poliza sinatuta, garabiaren funtzionamenduak eta hura obran egoteak sor lezakeen edozein istripu mota erabat estaltzen duena, eta garabia jarrita egongo den epe osoa hartuko duena; baita azken ordainagiriaren kopia ere.
- d) Garabia ondo muntatuta eta ondo funtzionatzen duela egiaztatzen duen ziurtagiria, enpresa instalatzaileak edo eskudun teknikariak egin.

Garabiaren kakoa zintzilikatzen den orgak ezingo du obraren orubearen eremua gainditu. Besoaren funtzionamendu-eremuak obren hesiak mugatzen duen espazioa gaindituko balu, inguruabar hori eta prebentzio-neurriak jasota geratu beharko dira lizentzian eta kontu berezia izan beharko da elektrizitate-lineekin sor litezkeen kontaktuei dagokienez.

Garabiak garraiatuko dituen elementuak obrako arduradunaren iritziz beharrezko segurtasun bermea eskaintzen duen moduan jarriko dira.

#### INSTALACIÓN DE GRUAS:

Previamente a la instalación de la grúa que se vaya a emplear en el transcurso de las obras, deberá presentar una solicitud para la instalación de las mismas, que deberá constar de los siguientes documentos:

- a) Plano de emplazamiento de la grúa torre dentro de la obra, con indicación expresa de los obstáculos existentes en el alcance y en las proximidades, graficando la ubicación de la grúa, el radio de giro y el área de barrido de la pluma, firmado por el Arquitecto autor del proyecto y director de las obras.
- b) Certificado de resistencia del terreno expedido por técnico competente.
- c) Póliza de seguro con cobertura total de cualquier género de accidentes que pueda producir el funcionamiento de la grúa y su estancia en la obra, y copia del último recibo.
- d) Certificación de la casa instaladora o técnico competente, acreditativa del perfecto estado de montaje y funcionamiento de la grúa.

El carro del que cuelga el gancho de la grúa no deberá rebasar el área del solar de la obra. Si el área de funcionamiento del brazo rebasase el espacio acotado por la valla de las obras, deberá hacerse constar en la licencia, con las prevenciones del caso, habiéndose de tener especial cuidado con los posibles contactos con líneas de conducción de electricidad.

Los elementos que transporte la grúa serán colocados en forma que presenten la necesaria garantía de seguridad a juicio del facultativo de la obra.

Zehatz-mehatz bete behar da ekainaren 27ko 836/2003 Errege Dekretuan garabiei buruz jasotzen dena; dekretu horrek jasogailuen eta mantentze-gailuen Araudiko "MIE-AEM-2" jarraibide tekniko osagarriaren testu aldatua eta bateratua onesten du, **obretarako** dorre-garabiei edo bestelako aplikazioei dagokienez.

**BESTE ZENBAIT BALDINTZA:** Obrak, aurkeztutako eta Udalak onartutako planoak zehatz-mehatz errespetatuz egikaritu behar direla gogorarazten da bereziki. Ondorio horretarako, Udal Zerbitzu Teknikoek aldian behingo berrazterketak egingo dituzte obrak egin bitartean.

Edozein eratako aldaketa obrak egikaritu aurretik eskatuko da, eta haiek ezingo dira hasi dagokion udal-baimenik gabe.

Zuinketa Aktatik aurrera obra horiek egikaritzeko epea kontatzen hasiko da, eta ez da hilabete baino gehiagokoa izango.

Epe hori obrak amaitu gabe igarotzen bada, lizentziaren iraungitzea deklaratzeko izapideei hasiera emango zaie, baldin eta luzapenik eman ez bada.

